Bilboko Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

# ALKARTE ABEGITSUAK

## GARIZUMA ALDIA 2021

## NERABEZARO AURREKO ALDIA - 10 / 14 URTE





# AURKEZPENA

Garizuma eta Pazko aldian gizarte-karitate eta misiolari konpromisoa aparteko eran lantzeko borondatearekin jarri nahi da martxan ADISKIDE ETA SENIDE ekimena. Frantzisko Aita Santuak Fratelli Tutti bere entziklikan gizarte adiskidetasun eta senidetasunerako egiten duen deiak indartzen eta sendotzen du egitasmo hau. Egoera ahulean dauden pertsonak, etorkinak eta pobretasuna, langabezia, bakardadea, gaixotasuna, bazterketa, e.a. jasaten dutenak «hartzera, babestera, sustatzera eta gizarteratzera» garamatzan proposamena.



# HELBURUA

Gogoeta eta proposamen hau abiapuntutzat hartuta, taldea, elkarte abegitsu eta kideak, adiskide eta senide izateko bidean jarriko dituen konpromisoa hartzea.

# ARDATZAK

Mundu osoaren senidetasunerako, herri adiskidetasunerako, “gurekiko” ez ezik besteekiko senidetasunerako deia elkarteetara ekartzean datza; atzerritarrak, pertsona ahulak,… dira senidetasunari eta gizarte adiskidetasunari egiten zaien benetako erronka.
Samariar onaren parabolak (Lk 10, 25-37), bestearengana, arrotzarengana, etorkinarengana, behartsuarengana, biktimarengana hurbildu egin behar dugula diosku. Lagun hurkoa, hurbiltzen dena da. Benetako senidetasuna, anai eta arreba bezala aitortzen dugunean, besteari, urrunekoari, desberdinari diogun maitasuna da.
Adiskide eta senidez osaturiko elkarte abegitsu izatea ez da elkarteak irekitzea bakarrik. Kontua ez da bestea noiz iritsiko zain egotea, bidera ateratzea baizik. Norbere ibilaldia eten, bidean aurkitutako bestearen beharrari erantzuteko. Hartu, Babestu, Sustatu eta Gizarteratu, elkarte izateko bide bezala. Irekitasun eta senidetasun handiagoko mundua eraiki.



BEGIRALEENTZAT – LAGUNTZAILEENTZAT – KATEKISTENTZAT
(saioa dinamizatuko duten pertsonentzat)

# JARDUNBIDEAREN AZALPENA

Ordubete eta erdi, bi ordu inguruko saio bakarrean garatzeko moduko jarduera da. Hiru atal ditu: lehenengoak elkarte abegitsuen nondik norakoak azaltzen dizkigu jolas-erara. Bigarrena, samariar onaren parabolaren inguruan garatzen da eta hirugarren atalak gogoeta eta konpromisora garamatza eta otoitzarekin amaitzen da.
Ideia eta edukiak garatzeko lagungarri moduak aurkezten dira multimedia osagaiak; aldeak daude talde batetik bestera eta laguntzaileak erabakiko du horiez baliatzea komeni zaion ala ez.
Motibazioa eta girotzea lagungarri izan daiteke garapenerako; horregatik, argibide zehatz batzuk emango ditugu jardunbidearen emaitza ona izan dadin.

- Misioak gaindituko dituzten taldeak ez dira sei lagun baino gehiagokoak izango; gutxiago izatea, ez da arazoa.
- Jarduerari ekin baino lehen, prest izan jokoa egiteko ezinbesteko diren osagaiak. 'Ihes aretoa' dela hobeto irudikatzeko, atea itxita egongo da.
- Giro estua sortu; horretarako, denbora markatuko duen kronometroaz balia gaitezke.

# LAGUNGARRIAK

ERLOJU EDO KRONOMETROA DENBORAK KALKULATZEKO
Fitxa,misio bakoitzerako txartelekin.

1. MISIOA:
- Bideo/txartela ideia nagusiekin
- Orri eta boligrafoa (talde bakoitzeko bat)

2. MISIOA:
- Alfabetoa sinboloekin
- Hitzen zerrenda deszifratzeko
- Taula bi zutaberekin (sinonimoak eta antonimoak)

3. MISIOA:
- Ipuina paragrafotan banatuta

4. MISIOA:
- Orri eta boligrafoa

5. MISIOA:
- Zenbakiak: 0-1-2-3-5-7
- Biblia

6. MISIOA:
- Idazkia: Samariar ona
- Fitxa irudi eta galderekin

7. MISIOA:
Txartel handia arrastoak ipintzeko.

Jarraibideak eta materialak eskuratzeko

sakatu hemen

# ENTER ROOM



Audioa entzuteko estekan sakatu



## 1. MISIOA

Ekartearen definizioa idatzi




Sakatu hemen




## 2. MISIOA

Argitu hitzen zerrenda eta bi zutabetan sailkatu



| HARTU | |
|---|---|
| SINONIMOAK (ESANAHI BERA) | ANTONIMOAK (KONTRAKO ESANAHIA) |




## 3. MISIOA

Hona hemen hainbat paragrafo. Ordenan jarriz gero, istorioa kontatzen dute. ARRETAZ IRAKURRI.






# 4. MISIOA

2. misioko hitz negatiboen zerrenda hartu:
Orain, zerrendako hitz negatibo bakoitzeko, hitz positiboa aurkitu behar duzue. Ezin da letrarik gehitu, eta ez da ezinbestekoa letra guztiak erabiltzea hitza lortzeko.




# 5. MISIOA

Zenbaki hauek (0-1-2-3-5-7) ordenatu behar dituzue kode zuzena lortzeko.






# 6. MISIOA

Eroso eseri, elkarren arteko tartea gorde eta isiltasuna eginez,
Entzun idazki hau eta pertsonaien ezaugarriez jabetu












# 7. MISIOA "EGIN ZUEK ERE HORRENBESTE"




Parabolan, hainbat gauza gertatzen da
Zeintzuk imitatu behar ditugu? 'Hartu' hitzaren sinonimoen zerrendaz baliatuz, aukeratu zein gauzatuko duzuen eguneroko bizitzan. Idatzi zuen konpromisoak eta zigilatu zuen arrastoarekin atea ireki ahal izateko. Partaide guztien arrastoak dituen txartelak bakarrik ireki dezake atea.







Sakatu hemen

# OTOITZA

Gizadiaren Jaun eta Aita,
gizon eta emakume guztiak, duintasun beraz sortu zenituena,
isuri gure bihotzetara senidetasun-sena.
Zure goiargiarekin, elkartzea, harremana,
zuzentasuna eta bakea izan ditzagula amets.
Bultza gaitzazu gizarte sanoagoak eta mundu duinagoa sortzera,
goserik, pobretasunik, indarkeriarik eta gerrarik gabeko mundua sortzera.
Gure bihotza zabalik egon dadila lurreko herri eta herrialde guztientzat,
horietako bakoitzean erein zenuen
on eta edertasuna aitortzeko,
batasuna sustatu eta baterako egitasmoen,
baterako itxaropenen lokarriak estutzeko.
Amen.

**ZORIONAK!**
**LORTU DUZUE!!**
**GORA BIHOTZAK!**
**GORA ZUEK!**

